

Euskararen plan estrategikoa 2018-22

PARTE HARTZE SAIOAK

2. saioa: 2018-03-14

SARRERA

- Udalek bi plan:
 - Udal barrukoa
 - Herrira begirakoa.
- Lanketa:
 - Herrira begira: otsailak 28, martxoak 14.
 - Udal barruan, kanpo proiektzio handieneko sailekin. Dagoeneko eginda.
- Onarpena: aurreikuspena, **maiatzean** onartzea.

GAURKO SAIOAREN ANTOLAKETA

- Sarrera (5´)
- Taldeka landuko diren arloen aurkezpen orokorra (25´):
 - Euskaraldia
 - Ahozkoitasuna
 - Eskolaz kanpoko mundua
 - Erdaldunak, euskara maila apalekoak
 - Lan mundua
- Gogoeta taldeka (45´: Euskaraldia + aukeratutako arloa)
- Taldeetako gogoeten aurkezpena (15´)

1. EUSKARALDIA



- **Abiapuntua:** beste herri batzuetako aktibazio ekimen arrakastatsuak
- **Ekimena:** EUSKAL HERRI OSOAN gauzatuko den AKTIBAZIO ekimen BATERATUA

- **Sustatzaile nagusiak:**



- **Bergarako sustatzaile nagusiak:**





Helburuak

- **Inertziak** apurtzea. Aldekotasun sinbolikotik, urrats praktikoetara igarotzea.
- Pertsonen hizkuntza ohiturak aldatzen saiatzea.
Egunerokoan eragitea.
- Euskararen **ezagutza** eta **erabileraren** arteko **aldea txikitzea**

ezagutza %70 inguru erabilera %40 inguru



11 egun euskaraz

- **Noiz?**
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra
- **Non?**
Euskal Herri osoan
 - Auzo, herri zein eskualdeetan
- **Nork?**
16 urtetik gorako herritar euskaldunak

Parte hartzaileak



- **Ahobizi-ak**

“Ulertzen duenari euskaraz egiten diot, hark erdaraz erantzun arren. Eta ezezagunei ere lehen hitza euskaraz egiten diet”



- **Belarriprest-ak**

“Egidazu euskaraz; nik gazteleraz zein euskaraz erantzungo dizut”.



Nola?

- Elkarlanean
- Batzordea eratuta
- Herritarrak prestatuta
- Izena emanda
- Aktibatuta!



Mugarri orokorrak

ORAIN ARTE EGINDAKOAK

- Gizarteratzea
(2017ko euskararen eguna)
- Dinamizatzailearen deialdia

HEMENDIK AURRERAKOAK

- Herri bezala izena eman (apirila)
- Dinamizatzailea hautatu (apirila)
- Batzordea osatu (apirila)
- Herria aktibatu (maiatza-iraila)
- Herritarren izen ematea (iraila-urria)
- Prestaketa/formakuntza (urria-azaroa)

11 egun euskaraz!

2. AHOZKOTASUNA

AHOZKOTASUNA, BERBETA INFORMALA... EUSKAL ELEBIDUNA HELBURU

LANGAIA: Berbazko gaitasuna hobetzeko bideak: nola eskaini praktikari denbora gehiago, nola piztu aberasteko jarrera...

UNE HONETAKO PROIEKTU NAGUSIA: “BERBEKIN” programa pilotua, ikastetxeetan.

- Klasea emateko modua aldatu, ahozkoari leku handiagoa ikasgai guztietan.
- Irakasle guztiak, “euskara irakasle”.
 - Klaseak bideoz grabatu, diagnostia egiteko...
 - Formazioa, praktika onak diseinatu, Talde Eragilea, jarraipena...
- Ikerketa Soziolinguistika Klusterrarekin. Aurten amaituko da. Programak jarraituko du.

ESKOLAZ KANPOKO MUNDUA

Arrazoia: ahulezia nagusia: berbeta informalean.

Ekimenak: Eskola kirolean eta Jardunek antolatutako aisialdian, zenbait ekimen: programazioak moldatu dira hizkuntzaren presentzia handitzeko.

Zailtasunak, hezitzaile edo entrenatzaile guztiak bide horretan jartzeko: talde handiegiak, entrenatzaile boluntarioak....

Bergaran antolatu izan diren beste jarduera batzuk:

- Hika lantzeko ikastaroak eta hikalaguna: 2016-17an 8 lagun; 2015-16an 11 lagun.
- Gurasoentzako jolas eta kanta ikastaroak
- Gurasoentzako, ipuin-kontaketa tailerrak
- Bergarako euskara lantzeko ikastaroak: 2015-16an 24 lagun.
-

Aurrera begira zer beste?

- Eskolako esperientzia heda dezakegu?
 - Formazioa; sentiberatzea, ahozkoaren garrantziaz: gurasoak, irakasleak, begiraleak...
 - Praktika: tailerrak, guraso eta ume elkarrekin (Bularretik Mintzoraren gisakoak...)
 - Baliabideak: zer baliabide sor ditzakegu jendearentzat lagungarri izateko? Sarean badira baliabide batzuk: (<http://www.aittu.net/>; <https://ahozkotasuna.wordpress.com/>...),

Ahozkotasunaren gaia lantzeko aliatu izan ditzakegun korronteak eta ideiak:

- ahozkotasuna lantzea emaitza akademikoetarako mesedegarri...
- entzute aktiboaren garrantzia hainbat gaitarako,
- jendaurrean hitz egitea, gero eta beharrezkoagoa den trebetasuna...

Ikas-metodoen eraginkortasuna

NTL Estatu Batuetako institutuaren irakaskuntzaren piramidea

Ikasitako edukiaren batez besteko jasotze portzentaia 24 orduren buruan, irakaskuntza metodoaren arabera



Ahozkoa bultzatzea, beraz, oso ona da, besteak beste, emaitza akademikoetarako ere.

3. Eskolaz kanpoko mundua

ESKOLAZ KANPOKO MUNDUA 2017-18an

(18 urtez azpikoentzako jarduerak)

1.- Partehartzea

a. Kultura arloa

		Partaideak	Mut	Nes	Mut %	Nes %	Etorkinak	PH %
Elkartek	Musika eskola	884	330	553	37	63	16	46
	Antzerki eskola	10	3	7	30	70	----	2
	Bertso eskola	7	4	3	57	43	----	1
	Euskal dantzak ME	60	6	54	10	90		3
	Euskal dantzak	92	12	80	13	87		5
	Orfeoi gaztea	27	4	23	15	85	1	3
Entit. pribatuak	Dantza akademia							

PH%: Parte har dezaketen guztiak kontuan hartuta, zenbatek hartzen duten parte jardueran.

Euskararen Plan Estrategikoa 2018-22

ESKOLAZ KANPOKO MUNDUA 2017-18an

(18 urtez azpikoentzako jarduerak)

b. Aisialdia

		Partaideak	Mut	Nes	Mut %	Nes %	Etorkinak	PH %
Elkartek	Txapligu	168 (75)	61	107	36	64	----	30
Udala	Gaztelekua	80 (50)	40	40	50	50	1	12
	Udaleku irekiak	525	289	236	55	45	2	37
	Ludoteka	104 (50)	40	64	39	61	40	18

c. Errefortzuak

	Partaideak
LH hasiera maila	10
LH maila ertaina	17
DBH hasiera maila	9
DBH maila ertaina	7
Guztira	43

OHARRAK:

Partaideak: lehenengo kopurua izena emandakoak, parentesi artean normalean joaten direnak.

PH%: Parte har dezaketen guztiak kontuan hartuta, zenbatek hartzen duten parte jardueran.

ESKOLAZ KANPOKO MUNDUA 2017-18an

(18 urtez azpikoentzako jarduerak)

d. Kirolak.

		Partaideak	Mut	Nes	Mut %	Nes %	Etorkinak	PH%
Elkartek	Pilota	101	92	9	91	9	----	6
	Igeriketa	78	25	53	32	68	1	5
	Ziklismoa	22	22	----	100	----	----	1
	Eskubaloia	73	44	29	60	40	1	5
	Karatea	101	65	36	64	36	----	6
	Piraguismoa	12	10	2	83	17	----	1
	Futbol eskola	167	144	23	86	14	13	29
	Futbol federatua	226	140	86	62	38	4	22
	Saskibaloia	114	52	62	46	54	1	8
	Gimnasia erritmikoa	55	---	55	----	100	----	3
Hockey-a	32	20	12	63	37		2	
Udala	Eskola kirola	475	322	153	68	32	31	55
	Igeriketa-ikastaroak	279	132	142	49	51		----
	Spining gazte	18	5	13	28	72	----	3
	Zunba	15	----	15	---	100	----	2
	Multitraining gazte	16	2	14	12	88	----	2
Entit. pribatuak	Karatea							

PH%: Parte har dezaketen guztiak kontuan hartuta, zenbatek hartzen duten parte jardueran.

ESKOLAZ KANPOKO MUNDUA

2. Hizkuntza bilakaera 18 urtez azpikoetan

KIROLAK		2013-14	2017-18
Elkartek	Pilota		
	Igeriketa		
	Ziklismoa		
	Eskubaloia		
	Karatea		
	Piraguismoa		
	Futbol eskola		
	Futbola	(6/9)	%27 (3/11)
	Saskibaloia	(4/11)	%28 (3/10)
	Gimnasia erritmikoa	(5/5)	%43 (2/5)
	Hockey-a		
Udala	Eskola kirola		
	Igeriketa-ikastaroak		
	Spining gazte		
	Zunba....		
	Multitraining gazte		
Entit. pribatuak	Karatea		

KULTURA		2013-14	2017-18
Elkartek	Musika eskola		
	Antzerki eskola		
	Bertso eskola		
	Euskal dantzak ME		
	Euskal dantzak		
	Orfeoi gaztea		
Entit. pribatuak	Dantza akademia		
	Pintura akademia		

AISIALDIA		2013-14	2017-18
Elkartek	Txapligu		
Udala	Gaztelekua		
	Udaleku irekiak		
	Ludoteka		

Azalpena:

- **Koloreak:** Berdez, guztia euskaraz dutenak, laranja guztia euskaraz ez dutenak.
- **Parentesi artekoak.** Lehenengo zenbakia, zenbat talde dabilzan erdaraz; bigarrena zenbat talde diren guztira.

Euskararen Plan Estrategikoa 2018-22

ESKOLAZ KANPOKO MUNDUA

INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Bizipen positiboak	Eragiteko ahalmen txikia (ordu gutxi, adinak gora egin ahala gero eta eragin gutxiago...)
Erabaki organoak: <ul style="list-style-type: none"> • Euskararen aldeko jarrera • Euskaldun berrien jarrera eredugarria 	Entrenatzaileak, begiraleak...: <ul style="list-style-type: none"> • Langileak aurkitzeko zailtasunak: lan jardun laburrak edo boluntarioak • Hezitzaileak trebatzeko zailtasunak
Gero eta langile gazteagoak ⇒ gero eta euskaldunagoak	Hainbat hezitzaile ez dira eredu euskara kontutan
	Gurasoak: eskatzen dituzte jarduerak euskaraz?
Erdaraz bizi direnentzat kuadrillen arteko nahastea	Euskaraz bizi direnentzat kuadrillen arteko nahastea
	Etorkinak integratzeko zailtasunak
18 urtetik gorakoak: Seniorren taldeak, Gaztetxea, Xaxau...	Erreleborik bai?
	Eskolaz kanpoko mundu ez antolatua

4. Heldu erdaldunak eta euskara maila apalekoak

HELDU ERDILDUNAK ZER?

AUZOKO egitasmoa

Helburu nagusiak:

- Euskara batere ez dakitenak euskarara hurbiltzea (lehen hitzak eta harremanetarako oinarrizko esaldiak ikasi,...).
- Jatorri ezberdinetako herritarrak euskal gizartean integratzeko lehen urratsak ematea.



Datu batzuk:

- Bergaran 2009tik martxan. Urtero batz best 10-20 “auzokide” (euskara ez dakitenak) iraunkorrek eta beste batzuk ekintza berezietan.
- Azken urteetan talde bat emakumeentzat bereziki.
- Gaur egun 9 herritan martxan: Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Arrasate, Antzuola, Ibarra, Soraluze, Gasteiz, Donostia.

AUZOKO egitasmoa

Funtzionamendua:

- Astean ordu eta erdiz taldean elkartu, dinamizatzaile-laguntzaile batzuekin. Dinamika ludikoak: hizkuntza lantzeko jolasak, joskintza tailerra, frontenis txapelketa, Laboratorium museoa ikustera, te-hartzea,...
- Tarteka herriko ekintza batzuetan parte hartu: San Martinetako tanborrada, Korrika, erreka garbiketa, azokak ikustera, ...
- Urtean behin “Auzoko eguna”, *Auzoko* egitasmoa daukaten herri guztiek parte hartuz.

2017-2018an Bergaran 2 talde:

- Talde bat emakumeei zuzendutakoa. Gaur egun 3 emakume marokoar dabilta koordinatzailearekin batera.
- Talde irekian 11-12 auzokide elkartzen dira (senegaldarrak, nepaldarra, pakistandarrak, marokoarra, txiletarra eta nikaraguarra) eta Bergarako 4-6 laguntzaile.

AHULGUNEAK

- Atzerritar batzuk ez dute euskararen premiarik sentitzen. Batzuk gaztelerarekin moldatzen direlako (espainiarrak, hegoamerikarrak..) eta beste batzuk euren artean egiten dutelako bizitza (pakistandarrak, marokoarrak...)
- Atzerritarrengana hurbiltzeko baliabide falta: harrera-plan eraginkorrik ez...
- Atzerritarrekin harremanetan dauden eragile desberdinen (Caritas, Sos Arrazakeriak, EPA, elikagaien bankua...) artean elkarlan gutxi.
- Euskaldunon aldetik mesfidantza edo irekitasun falta. Kritikak ere ugari: “diru-laguntza gehiegi”, ...

INDARGUNEAK

- Auzokoren bitartez euskal kulturara hurbiltzen dira, integratziorako lehen urratsak ematen dira.
- Kanpotarrei sozializatzeko premia pizten zaie. Umeek euskaraz ikastea ere motibatuzeko lagungarria da.
- Ikastetxe batzuetako guraso batzordeetatik sortutako ekimenak; adibidez, orain San Martin eskolakoek euskara batera ez dakitenentzat euskara eskolak antolatzen ari dira udal euskaltegiarekin.
- AISA izeneko 60 orduko ikastaro bereziak udal euskaltegian.
- “Euskara lapikoan” ikastaro berezia, euren premietara hurbiltzeko.



Euskara lapikoan
Oinarrizko euskara eta sukaldaritza ikastaroa
Cursillo básico de euskera y cocina

Egunak-Fechas
Martxoaren 7tik 23ra,
asteazken eta ostiralero

Del 7 al 23 de marzo,
todos los miércoles y viernes

Ordutegia-Horario
11:00-13:00

Non?-¿Dónde?
Bergara
Prezioa
5€

Izen-ematea
Jardun-euskara-elkartea
943763661/605712469
jardun@topagunea.com

Bizikasi zerbitzua
943769394
info@bizikasi.com



EUSKARA MAILA APALEKO HELDUEKIN ZER?

BERRIKETAN egitasmoa

Helburu nagusia:

- Euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak (bidelagunak) eta praktikatzeko beharra dutenak (bidelariak) taldeka elkartu eta euskaltegitik kanpo euskaraz hitz egitea.



Datu batzuk

- Bergaran 2006an hasi zen 65 lagunekin (16 bidelagun eta 49 bidelari)
- Urtero 50-75 lagun inguru ibiltzen dira (%80 inguru emakumezkoak)
- 2017-2018an 54 dabilta taldeetan, 14 bidelagun eta 40 bidelari (gehienak euskaltegiko ikasleak edo ikasle ohiak).
- Gaur egun 120 herritan taldeak martxan. Guztira 6.000 bat mintza-lagun.

EUSKARA MAILA APALEKO HELDUEKIN ZER?

BERRIKETAN egitasmoa

Funtzionamendua:



- Koordinatzaileak 3-6 laguneko taldeak antolatzen ditu.
- Talde bakoitzean laguntzaile bat (ez irakaslea) eta bizpahiru “bidelari”.
- Gehienak astean behin ordubetez elkartzen dira.
- Tarteka ekintza bereziak (mendi irteerak, bisita kulturalak, Mintza-eguna...)
- Urtero berriak eta bajak: 5-10 pertsona berri eta 5-10ek utzi (batzuk kanpoan ere euskara gehiago egiteko pausoa eman dutelako).
- Gehienek errepikatu egin dute, euskara aisialdian eta lagun giroan praktikatzeko esperientzia hau atsegin dutelako.

AHULGUNEAK

- Ingurukoekin hizkuntza ohitura aldatzeko zailtasunak. Taldean eroso, baina taldetik kanpo helburuak jarri eta urratsak emateko zailtasunak.
- Kasu batzuetan euskaldunok laguntza gutxi euskaraz juxtuan hitz egiten duenari (zailtasuna sumatuz gero, zuzenean gaztelaniara).
- Guraso-lagunen taldeak sortzeko zailtasunak, gurasoak eta umeak elkartzen ziren talde bakarra izan da.
- Ez da gazteengana iristen.
- Astean behin ordubete gutxi da.

INDARGUNEAK

- Euskararen maila apala dutenek praktikatzeko konfiantza giroa.
- Bidelariak aitortzen dute euskararen erabilera handitzen dutela. Dendariekin... hasten dira euskaraz hitz egiten. Telebista, aldizkariak... euskaraz gehiago.
- Euskaltegiarekin koordinazio ona. Bidelari asko euskaltegitik etortzen dira.
- Euskaltegitik kanpo, euren inguru hurbilean euskaraz hitz egiteko aukerarik ez dutenentzat aukera ederra.
- Ekintza berezien bidez inguruko euskaldunen sarea zabaltzen da.
- Balorazio oso positiboa jasotzen du. Partaideak gustura ibiltzen dira eta gehienek errepikatu egiten dute.

“Berriketan brigadan” egitasmoa udal langileen artean

Helburu nagusiak:

- Euskararen maila apala dutenek edota ikasten ari direnek euskaraz gehiago egitea, batik bat ahoz. Eta horretarako euskaldunon laguntza bultzatzea.
- Euskaldunak euren artean eta euskaldun berriekin euskara gehiago erabiltzea.

Datu batzuk

- 2012tik taldeka sentsibilizazio bilerak. Premiaren arabera, urtean 1 edo bi.
- Euskara maila apaleko langile batzuk eta ikasten ari direnak tartean.

“Berriketan brigadan” egitasmoa udal langileen artean

Zer egin:

- Mintza-tratuak: “Nik beti euskaraz eta zuk ahal duzunean euskaraz”, batzuekin polikiago eta argiago hitz egin, zuzenketarik ez, euskara maila apala dutenei entzuteko pazientzia...
- Konpromiso zehatzak: norekin egin nahi dudan gehiago identifikatu, zuzenean adierazi euskaraz egiteko nahia, lehen hitza beti euskaraz...

Eraitza positiboak:

- Euskaldun berriek konfiantzan hitz egiteko guneak.
- Euren eskariak egiten dituzte: “polikiago hitz egin, mesedez”, “ez dizut ondo ulertzen”.
- Euskaldunak ere motibatzeko balio du: euskaldun berriei laguntzeko aukera...
- Lankideen artean eta kanpoko harremanetan ere euskara gehiago egiten dutela diote.

Talde lanketa

Euskaraldia. 2017-11-30eko pintxo-tertuliako ekarpenak

Apirila	Maiatza Pazkoak	Ekaina	Uztaila S. Martzial	Iraila S. Martin	Urria	Azaroa	Abendua
Enpresak, entitateak, elkarteak banaka bisitatu. Zerbitzu-enpresak inplikatzeari oso garrantzitsua.							
	Barrakak: musika zentralizatu eta kuñak tartekatu...			Ikastetxeetako guraso bilerak			
						12-16 urtekoekin antzeko zerbait egin	
						Enpresetako, dendetako... sarreretan logoa ipini	
							Kanpaina ostean nola mantendu?

- Bideoen bat WhatsApeez zabaltzeko, kartelak, sare sozialak...
- Logoa WhatsApeko perfiletan
- Gazteek izena eman dezaten euren erreferenteen bidez zabaldu mezua; kontzertuak, bideo-lehiaketak gazteentzat
- QR kodeak, komunikabide orokorrak
- Moda desfilea, bandaren kontzertua eta ekitaldi masiboetan... logoa jarri eta ekimena gogorarazi.
- Erronka modura planteatu ez hizkuntza ohiturak aldatzeko ideia moduan.

Euskararen Plan Estrategikoa 2018-22

Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua